

Manuel Urreta
Tolosa, Gipuzkoa (1888)

Aurkibidea

Biografia

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Merkataria zen eta 25 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: gipuzkera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.234 eta 2.235

Zintak

TOL-072

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-08-28
- **Iraupena:** 5 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Emalea:** OAW

Pasarteak

1. "Aita eta semea" izeneko narrazioa

- **Erref:** TOL-072/001
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:56

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>"Euskalzale Aldizkaria" izenekoetik hartutakoa da pasarte hau. Bilbon sortutako aldizkari honen zuzendaria Resurreccion Maria de Azkue zen. "Aita eta semea" izeneko narrazioa da.</p>

Transkripzioa

Uri txiki bateko burunausie.

Egun batean, pertz-kondoa gorde etziotelako, bi urteko umea bañon areago negarrez egondu zan gizon bat esanaz emaz[teari] etziola naitasun aundirik, ba naiago izan zuela semetxoari eman pertz-kondoa. Urrengo igandean aia egin zuan emazteak, eta semetxoak jan baiño len, oietako bat bialdu zuan Meza nagusi ondoan senarrarengana esatera etorri zeuela azkar etxera pertz-kondoa jan nai bazun. Mutilla joan zan aitari albiste au eramatera; ordu onetan zegoan ura uri-etxe edo konsejuan iganderoko billeran. Sartu zan semea erriko jaunak arki ziran lekura eta danen aurrean aitari esaten dio:

- Aita, amak esan dit pertz-kondoa mizkatu nai badu, len bait len joateko. Lotsaturik, ark egiten dio beatzarekin keiñu bat adieraziyez ixillik egon dedilla.

Mutill errugabeak, kemen aundiaz, orduan dio:

- Bai, oain ixillik egoteko diozu, eta joan dan igandean bezela amak gorde ezpazuan, nearrez jardungo zenduan umeak bezela.

Au aditu ondoan, ze esanik eztago, erriko jaun guztiak algaraz eta farrez asi ziran, eta gure alkatea lotsaturik gelditu zan.

Alaz guziaz ere etxera iritxi zan ean pertz-kondoan galdera egin zion lenengo emazteari.

2. "Benetako istorioak"

- **Erref:** TOL-072/003
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:02:03. **Bukatu:** 00:04:05

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>"Euskalzale Aldizkaria" izenekoetik hartutakoa da pasarte hau. Bilbon sortutako aldizkari honen zuzendaria Resurreccion Maria de Azkue zen. Bi baserriarren arteko elkarriketa bat da "Benetako istorioak" izeneko hau. Uztari buruz ari dira hizketan, euriaren garrantziaz.</p>

Transkripzioa

Izkirimiri gertatuak

- Erramon, nik plazan salerosiak egin bitartean oliyo-[ontz]i oni jariyoa kendu bear diozu.

- Ondo da! Ta, Joxpa-Pilipa, kanpoak labore onak dakazkite?

- Obe genduke ba gauzik asko baño! Egi-egie esaten dizut eta gaur edo biyar, euriya, bañan gogotik, ezpadu egiten... aurtengo nekazariaren izatea joana da pikotara. Lur guziak elkortu dittu beroak eta lena berriz esaten dizut, euririk egiten ezpadu ainbat lasterren... urte gogoangarriya, bai gureztat eta orobat kaletarrentzat.

- Beiñere ba ta arrazoiz eskatzen dezute! Jaungoikoari nai dakiola ba len-bai-len euri zapar aundi bat eittea.

- Ala izan dedilla. Gero arte.

- Agur.

Plazako jua-entorriyak bukatzearekin batean asten du donariyo ederrean euri-zapar oparotsu bat, eta badijoa len aitatu degun ontzigillearengana.

- Jariyoa kendu diozu nere oliyo-ontziari, Erramon!

- Bai, tori... ta, zer esaten dirazu oraiñ euri-jasa oparotsu onengatik?

- Egi-egi bat esan bear bada, munduan ezta dirurik euri onek egiten duan lana ordainduko duanik...

- Orra ba, orra, gure Jaungoikoaren lanak, eskergabekeriz ordainduko badiozkagu ere.

- Alaxe da, bai. Ointxen ater[tuko balu ordu laurdentxo batean...!

- Atertu?

- Bai, etxera joateko busti gabe, euritakorik eztet ekarri ta...

Asko baldiñ bagera

onen antzekoak...

Nola asma dezake

gure Jaungoikoak?]

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com